

PROBA ESPEZIFIKOA

2015eko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

HISTORIA DEL ARTE

Probaren iraupena: ordubete

Probak bi atal ditu:

1. atala. Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala. Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. atala

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT

(5 puntu)

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta gutxi gorabehera noizkoa den.
- Egin obraren azterketa formala eta ikonografikoa.
- Azaldu ezazu, laburki, obra hau egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. atala

**PROPOSATZEN ZAIZKIZUN BI GAI HAUEN ARTETIK BAT GARATU BEHAR
DUZU (5 puntu)**

A.- Eskultura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.

B.- XX. mendeko arkitektura: Organizismoa.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES DE
25 AÑOS

MAYO 2015

HISTORIA DEL ARTE

ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA

1 A

Leóngo katedrala.

Egilea: ezezaguna.

Data: XIII.-XV. mendeak.

Leóngo katedrala, Espainiako katedralik frantsesena, XIII. mendea jada aski aurreratua zegoela hasi ziren eraikitzen. X. mendeko eliza bat, hurrengo mendean berregituratua, izan zen oinarria, eta jo behar da 1255. urtearen ondoren hasiko zela eraikuntza. Bertako apezpiku Martin Fernandez eta Alfontso X.a erregea izan ziren babesle nagusiak. Erregeak, 1277an, zerga-salbuespena eman zien lantegian lanean ari ziren hogeitaz harginen, beiragileari eta errementariari hartan aritzen ziren bitartean.

Leóngo katedralaren oinplanoak, burualdearen antolamenduari dagokionez, Reimskoaren antza du, hipertrofiari dagokionez. Hiru nabe ditu oinaldean, espazioan markatutako transeptu bat eta girola bat. Altxaerarako, berriz, Amienseko berritasunak hartu ziren kontuan, triforioa husteari dagokionez. Hala, triforioa argi-sargune bihurtu zen. Alde horretatik, Leóngo da, Espainiako katedraletan, frantses egitura garbiari gehien hurbiltzen zaiona. Horretan zuzenean laguntzen dute beirate bikainek; haien parte handi bat kontserbatu da. Nabarmenezkoa da dorreak fatxadaren mutur banatan altxatuta daudela, eta ez egituran txertatuta. Alde horretatik, Ingalaterrako tradizioa hurbiltzen da zuzenean. Arkitekturaz gainera, eskultura-lan bikaina nabarmenezkoa da Leóngo katedrallean.

Katedralerako lanek XV., XVI. eta XVII. mendeetan jarraitu zuten, eta zaharberritze-lan garrantzitsuak egin ziren XIX.ean eta XX.eko lehen urteetan.

1 B

Titulua: *Avignongo andereñoak*.

Egilea: Pablo Ruiz Picasso

Data: 1907.

Kokalekua: New Yorkeko Arte Modernoko Museoa

Estiloa: kubismoa

Teknika: oihal gaineko olio-pintura.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES DE
25 AÑOS

MAYO 2015

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Formalki, koadroa hiru zerrenda bertikaletan bereizita dago argi eta garbi. Erdialdea da "klasikoena", itxurari dagokionez; hala ere, jada hautematen da bi irudietan gorputzen atalkatzea. Dena dela, badira biluzien pintura tradizionalari egindako erreferentziak ere; batez ere, Goyaren "maja" direlakoei egindakoak, baita jarreran ere, zeren eta, zutik daudela ematen badu ere, etzanda baitaude, besoak buruaren atzean dituztela.

Bi irudi horietan, geroago pintura kubista izango zenaren printzipio garrantzitsu bat ageri da: obra beraren parte batzuek duten ikuspegi desberdina. Antzinateko egiptoarrek frontaltasun-lege bat erabiltzen zuten, non irudien aurpegia albora begira eta gorputz-enborra, berriz, aurrera begira agertzen baitziren. Era berean, Picassok goitik ikusiko balira bezala ezarri zituen bi irudi horiek, hala askoz hobeto antzematen baitzaie beren plano horizontaletik ikusita baino. Zerrenda horretan, koloreak klasikoagoak dira, ez hain bortitzak (zurien eta zeru-urdinen artean), eta bi nesken tonua adeitsuagoa da beste hiru neskenaren aldean.

Baina, erdialdean daudenez lehen begiratuan bestela badirudi ere, garrantzitsuena ez dago irudi horietan, zeren eta oihala betetzen duten lerro hautsiek margolanetik kanpora eramaten baitigute begirada. Margolanari begiratu nahi badiogu, behin eta berriro itzuli behar dugu oihalera, zeren eta obrak bere mugetatik kanpora eramaten baikaitu. Konposizio-lerroak zeharrik dira beti, eta dinamismo handia ematen diote obrari. Lerro horietako batzuek, gainera, margolanaren behealdeko natura hilera bideratzen gaituzte, eta xehetasun hori, anekdotikoa badirudi ere, ez da hain anekdotikoa, geroago ikusiko dugun moduan.

Margolanaren beste bi zerrendak Picassok lehenago egindako beste irudi batzuen gainean margotuta daude. Irudi horiek, estetikoki, erdialdeko irudien antza zuten (haietako bat marinel bat zen, errezel baten atzean agertu eta burdelean sartzen zena); hala ere, Picassok irudi horiek eta tratamendu estetikoa aldatzea erabaki zuen. Ezkerraldean errezel gorri beroa hedatzen ari den emakumeak kolore ilunagoa du aurpegian —albora begira dago— gorputzaren gainerakoan baino; eta gorputza, bestalde, erdialdean dauden emakumeen gorputzak baino gorritzagoa da. Alboko irudi horren koloreak eta formak erlazioa dute Picassok lehentxeago Kataluniara egindako bidaia batean izan zuen eraginarekin, bai eta erromanikoko iruditxo erlijiosoekin ere; artearen ikuspegi berri bat eman zioten pintoreari, eta lehen urratsa izan zen beste estetika baten alde egin zezan estetika naturalistaren ordean.



2 A

A.- Eskultura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.

Herri barbaroen saio prerromanikoetan bilatu behar dira aurrekariak: bitxiak, boliak, eskuizkribuen edertzapena, etab.; bizantziar estatuagintzan: espiritualitate kristauak baldintzatutako ondare grekolatindarra (hieratismoa, sinbolismoa eta naturaz gaindiko izaera); eta beranduko erromatar eskulturan eta sarkofago paleokristauetan, ezaugarri formalak eta ikonografia eman baitzizkioten.

Arkitekturaren mendekoa izatea: muga-espazioaren kontzeptua. Portada eta kapitela eskulturaren euskarri espezifikoak dira. Eskultura monumentalaren eta erliebearen berezko muga eratzen dute espazio horiek; eskultura arkitekturaren esparrura egokitzen behartuta dago.

Ezaugarri formalak:

- Antinaturalismoa: irudikatzen dena ez dago mundu errealarari lotua. Izaera sinbolikoa eta alegorikoa. Eduki erlijiosoa adieraztea bilatzen da.
- Irudiak nahita deformatzen dira, eragin emozionala bilatu nahian.
- Sinpletasuna eta estilizazioa. Geometrismoa eta abstrakzioa.
- Uko egiten dio giza gorputz biluzia irudikatzeari; irudi guztiak arropaz estaltzen dira. Ez dago proportzionaltasun-kanonik, ez eta masaren eta pisuaren arteko orekarik ere.
- Irudiak zurrinak dira, hieratikoak. Irmoak eta luzangak, haien izaera espirituala nabarmentzearen. Teknikoki primitibo gisa ageri dira, halako kutsu arkaiko batekin.
- Mugimendu-gabezia orokorra.
- Konposizioak eta eszenak plano berean elkarren gainean ezartzen dira, talderik eratu gabe.
- Bolumena falta da, konposizioak lauak eta simetrikoak dira, eta frontaltasuna da nagusi.
- Gogamenari zuzendutako plastika da, karga intelektual handikoa, eduki ideografikoak transmititzen baititu ahalegin didaktiko nabarmenarekin.

Gaiak eta ikonografia:

Elizak inspiratzen eta erabakitzen ditu gaiak, bai eta gaion adierazpena antolatzen duten irudien multzoa ere (ikonografia). Gaien hierarkizazioa konstante bat da, bi aldetatik: zer espazio okupatzen dituzten eta zer ikusizko garrantzi duten.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES DE
25 AÑOS

MAYO 2015

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

- Irudietarako inspirazioa miniatura prerromanikoetatik eta bizantziar bolietatik dator: eredu, jarrera eta konposizioak iradokitzen dituzte.
- Gaiak Itun Zaharretik eta Berritik ateratzen dira, edo hagiografia adierazgarrietatik (santu-santen eta martirien bizitzak).
- Harrizko katekesiaren osagarri, bekatu, bizio, bertute eta abarrei buruzko alegoriak daude, herriaren kontzientzian astindua eragingo zuten ideia edo kontzeptuak plastikara eramaten saiatuz.
- Portada da eszena nagusirako aukeratutako espazioa.

2B

XX. mendeko arkitektura: Organizismoa.

Estilo organikoa mugimendu arkitektoniko bat da, funtzionalismotik edo arrazionalismotik eratorria. Haren sustatzaile nagusiak 1930-40 hamarkadako eskandinaviar arkitektoak eta Frank Lloyd Wright estatubatuar arkitektoa dira. Mugimenduak arrazionalismoaren premisa asko onartzen ditu, hala nola oinplano askea, erabilgarritasuna apaingarritasun hutsaren gaineratik egotea eta industria-aroaren aurrerapenak arkitekturara sartzea, baina saiatzen da, bestalde, arrazionalismoak zituen erroreetako batzuk saihesten eta arkitekturari balio berriak ematen.

Jo daiteke Erik Gunnar Asplund, Suedian, eta Alvar Aalto, Finlandian, izan zirela korrante honetako bultzatzaile nagusiak. Honela laburbil daitezke organizismoaren oinarritzko ideiak:

Gehiago arduratzea gizakiaren bizitzaz. Gizakiari gehiago erreparatzen zaio arkitekturari berari baino. Arkitektoak ez du mugatu behar bere burua egituretara eta giroak antolatzen; aitzitik, gizakiaren arazo psikologiko eta bizi-arazoetara iritsi behar du.

Barne-espazioen kontzientzia berri bat: arkitektura arrazionalistak bolumenak oinplanoaren premietara moldatzea aldeztu badu ere, haren bolumenak forma tetraedrikoz osatutako estilo kubista baten mende daude, eta haietan txertatzen dira premiak; horrekin, gainera, egituraren eta eraikuntzaren sinplifikazioa bilatzen da. Asplund, Aalto eta haien eskolak, berriz, gizakiaren giro, ibilbide eta mugimenduen azterketatik abiatzen dira, eta, hala, egokienak iruditzen zaizkien espazioak sortzen iristen dira; gero, inguratzaile egoki bat ematen diete.

Irtenbide tekniko eta estrukturalak espazio horietara mugatu behar dira, eta, eskuarki, forma konplexuagoak sortzen dituzte, errepikatzen ez direnak, ekonomikoki



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES DE
25 AÑOS

MAYO 2015

HISTORIA DEL ARTE

kostu handiagokoak eta modu industrialean ekoizteko zailak. Alde horretatik, organizismoak bazterrean uzten du arrazionalismoaren postulatuetako bat, eta, ondo interpretatua denean, emaitza gizatiarragoak gauzaten ditu. Arkitekto organiko handien obrak askoz pertsonalagoak eta imitatzen zailagoak dira; horregatik, egokiagoa da planteamendu organiko batez mintzatzea arkitektura organikoko estilo batez mintzatzea baino. Arkitektura organikoaren maisulantzat har daitezke Viipuriko liburutegia (1930) eta New Yorkeko 1930eko Erakusketako Finlandiaren pabiloia, Aalto-renak biak ere; Göteborg-eko udaletxearen handitzea (1937), E. Asplund-ena, eta Taliesin West etxea, Arizonan, F. Lloyd Wright-ena.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES DE
25 AÑOS

MAYO 2015

HISTORIA DEL ARTE

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoan, dagokion puntuazioa ageri da, 10 puntu osatu arte.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorra

Kontuan hartuko dira erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, hiztegiaren kalitatea eta hizkuntza-zuzentasuna.

Irizpide espezifikoak

- Artelanak beren testuinguruan aztertzen eta interpretatzen ditu, diziplinaren hiztegi espezifikoa zuzen erabiliz.
- Arte-hizkuntza zorrotz interpretatzen du (formak, gaiak eta esanahiak).
- Zenbait tokitako obra adierazgarriak alderatzen ditu, haien arteko aldeak, antzekotasunak eta harremanak nabaritzen.
- Gaiak tratatzeko aldaketa eta arteari elkartutako erabilera eta funtzio berrien eragina deskribatzen ditu.
- Artearen historiari buruzko gai teoriko bat modu egokian garatzen du.

GALDEREN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO ERLAZIOA

PREGUNTA	UNIDAD DE APRENDIZAJE
Nº 1A	2. blokea
Nº 1 B	2. blokea
Nº 2 A	2. blokea
Nº 2 B	2. blokea